



Honakoa behin behineko bertsioa da. Aurrerago behin betiko testua eskuragarri egongo da.
Esta es una versión aproximada del discurso del Lehendakari. Próximamente estará disponible la versión definitiva de esta intervención.

EUSKAL DIASPORAREN EGUNA DIA DE LA DIÁSPORA VASCA

2018-09-08 Vitoria-Gasteiz 08-09-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, Herri Agintariok, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia, Gaztemunduko kideok, jaun andreok, egun on.

Zorionak, bai, mundu zabalean bizi diren euskaldun guztiei eta eskerrik asko Lehendakaritzara hurbildu zaretenoi.

Gaur Diasporaren Eguna da. Gure historia, kultura, nortasuna gogoratzeko eta gogoan izateko eguna. “Gogoa non dugu?” dio kanta ezagunak. Gaur gogoan mundu osoan dugu.

Diasporizatzeko eguna da gaurkoa, hau da, kanpoan den euskal komunitatearen balioa aldarrikatzeko, eskertzeko eta ezagutarazteko eguna. Hemen gaudenok eta munduan zehar Egun hau ospatzen ari direnek arbaso berberak ditugu. Bat gara eta bat izaten jarraitu nahi dugu. Atzo, gaur eta bihar.

El Pueblo Vasco tiene sus raíces a ambos lados de los Pirineos. Desde aquí nuestros antepasados emigraron, sobre todo a partir del siglo XIX, a lo que entonces era tierra de promisión: América. Lo hicieron por elección o, en la mayoría de los casos, por obligación.

El origen vasco se asocia a los valores de honradez, seriedad, trabajo y compromiso. Esta imagen positiva de Euskadi en el mundo se debe, también, a una Diáspora ejemplar. Eskerrik asko!

Hoy Euskadi vuelve a salir al exterior, aunque el destino es diferente. Las nuevas tecnologías de la información y los avances en el transporte facilitan la movilidad. América en el inicio, Europa siempre, Asia o Australia, también África. La presencia vasca se ha extendido por los cinco continentes. Lo importante, y este Día lo demuestra, es que la diáspora del siglo XXI ha mantenido las raíces y la relación con Euskadi.

Zuek zarete gure arbasoen lekukoak eta zuen lanari esker Euskadi eta euskaldunon izen ona munduan zehar zabaldu da. Euskadi Herri migrantea izan da. Kanpora irten eta onartu egin gintuzten. Gaur beste Herri batzuk datoz ate joka, etorkizun hobe baten bila Euskadira eta Europara, eta ezin dugu beste alde batera begiratu.

¿Qué hubiera sido de nuestra Diáspora si hubiéramos sido rechazados en los países de destino? Hoy recordamos nuestra historia como pueblo migrante porque hoy otros Pueblos llaman a nuestra puerta en busca de un futuro mejor. No podemos mirar para otro lado como sociedad. Una sociedad vasca acogida; y acogedora.

En este sentido, enviamos un afectuoso saludo a la colectividad vasca de Venezuela y, en especial a las comunidades de Caracas y Valencia, ante la preocupante situación en que se encuentran. Mantenemos una comunicación fluida y, desde nuestras posibilidades, intentaremos seguir ayudándoles. No os vamos a abandonar, como tampoco vosotras y vosotras abandonasteis a quienes llegaron a Venezuela desde Euskadi.

Hau da baita ere diasporizatu! Hau da, diaspora euskal gizartean zabaltzea eta haren balioa azpimarratzea. Agerian uzten dugu, Euskadin eta kanpoko euskal komunitatean, diasporaren balioa. Gure esker ona agertu nahi diegu Euskadi munduko herrialde bihurtu duten pertsona guztiei.

Kanpoan den komunitateko kideekin hitz egitean, askok gogora ekartzen dituzte beren familian komentatzen zituzten kontakizunak. Euskadira etortzean, aldaketak egon badira ere, kulturarekiko maitasuna berdin jarraitzen duela nabarmentzen dute. Herri baten partaide izatea sentimendu bat da. Diasporaren Egunaren bitartez, energia berria gaineratuko diogu mundu osoan zabaldutako euskaldunen izana eta izenari.

Este sentimiento de pertenencia es fruto de la red de relaciones creada por la comunidad vasca. Una red compuesta por 191 Centros Vascos – Euskal Etxeak en 25 países. Esta red tejida a lo largo de los años es un activo y una oportunidad para Euskadi Basque Country.

Hoy, más que nunca, nuestro pasado, la diáspora, nos enriquece en el presente y nos ayuda a marcar un camino hacia un futuro cada vez más abierto al mundo.

Merecéis todo nuestro reconocimiento porque habéis sabido mantener nuestra cultura, las tradiciones y el idioma de generación en generación a miles de kilómetros de Euskadi. Nos habéis demostrado que “no importa donde vivas, no importa lo lejos que estés; si vives Euskadi, Euskadi vive en ti”.

Elkarrekin bizi dugun sentimendua, kausa berarekiko grina, konpromisoa pizten digu.

Diasporaren Eguna erronka ere bada, euskal izaeraren garra munduan piztuta edukitzea baitagokigu. Gure kultura-ondarea bizirik eduki behar dugu, munduan zehar gure izana eta izena gorde eta sendotu.

Hoy sábado 8 de septiembre y, en simultáneo, este acto se celebra en los Centros Vascos de Francia, Alemania, Bélgica, Reino Unido, Japón, Chile, Argentina, Uruguay, Paraguay, Perú, Venezuela, México, Cuba, Brasil, Estados Unidos...

Un 8 de septiembre de hace casi cinco siglos, Juan Sebastian Elcano culminaba la primera vuelta al mundo y escribía al Emperador Carlos V: “... lo que más avemos de estimar y tener es que hemos descubierto e redondeado toda la redondez del mundo, yendo por el oçidente e viniendo por el oriente.”

Hoy, todas las personas vascas que “redondean el mundo” encuentran siempre la presencia, la acogida y el apoyo de quienes nos antecedieron en este viaje permanente de Euskadi alrededor del mundo.

Gaur, irailaren 8a, Diasporaren Eguna da eta harro gaude kanpoan bizi den gure euskal familia handiaz.

Eskerrik asko!